

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

4956 *Hutsen zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 10/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 23koa, zenbait finantza-arau aldatzen dituena Gainbegiratze-arloko Europar Agintaritzen ahalmenei dagokienez.*

Martxoaren 23ko 10/2012 Errege Lege Dekretua –Zenbait finantza-arau aldatzen dituena Gainbegiratze-arloko Europar Agintaritzen ahalmenei dagokienez– Estatuko Aldizkari Ofizialaren euskarazko gehigarrian argitaratu zen, 2012ko martxoaren 24ko alean, 72. zenbakian; hutsegiteak aurkitu dira testu horretan, eta honen bidez zuzentzen dira.

11. orrialdean, hirugarren artikulua hamaikagarren paragrafoan, hau dioen lekuan: «Hamaika. Honela geratzen da idatzita 71. artikuluko 4. paragrafoa: “4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak...”», hauxe esan behar du: «Hamaika. Honela geratzen da idatzita 71. artikuluko 4. paragrafoko bigarren lerrokada: “Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak...”».

12. orrialdean, hirugarren artikulua hamabosgarren paragrafoan, hau dioen lekuan: «8. paragrafo berri bat erantsen zaio 85. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita: “8. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionaleko...”», hauxe esan behar du: «Hamabost. 85. artikulua 7. paragrafoa honela geratuko da idatzita: “7. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionaleko...”», eta 7sic paragrafoa 8. paragrafoa izango da.

17. orrialdean, hirugarren artikulua hogeita zazpigarren paragrafoan, hau dioen lekuan: «Hogeita zazpi. 107 bis artikulua berri bat erantsen da, eta honela geratzen idatzita: “107 bis artikulua. *Arau-hausteen eta administrazio-zehapenen informazioa eta jakinarazpena.*”», hauxe esan behar du: «Hogeita zazpi. 107 ter artikulua berri bat erantsen da, eta honela geratzen idatzita: “107 ter artikulua. *Arau-hausteen eta administrazio-zehapenen informazioa eta jakinarazpena.*”».

22. orrialdean, azken xedapenetatik lehenaren hirugarren paragrafoan, hau dioen lekuan: «Lege honetako 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera...», hauxe esan behar du: «Errege lege-dekretu honetako 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera...».